

BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN ETA AZPIEGITURA SAILA

5611

AGINDUA, 2018ko azaroaren 8koa, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuarena, 2018ko urriaren 24ko Agindua, nekazaritza, arrantza eta elikadurako sektorearen arlo zientifiko eta teknologikoan eta enpresa-arloan ikertzaile eta teknologoak prestatzeko 2019ko laguntzetarako deialdia egiten duena aldatzeko dena.

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria arautzen duen abenduaren 23ko 217/2008 Dekretuak 18.2.c) artikuluan xedatzen duenez, aldizkarian egindako hutsak edo omisioak maila bereko xedapen edo ekintza batez zuzenduko dira, baldin eta nabarmenak ez badira eta, horiek zuzentzearen ondorioz, agiriaren edukia edo esanahia benetan edo itxuraz aldatzen bada.

Era horretako hutsak aurkitu dira Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuaren 2018ko urriaren 24ko Aginduaren testuan (2018ko azaroaren 2ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 211. zk.). Agindu horren bitartez, nekazaritza, arrantza eta elikadurako sektorearen arlo zientifiko eta teknologikoan eta enpresa-arloan ikertzaile eta teknologoak prestatzeko 2019ko laguntzetarako deialdia egiten da. Horrenbestez, dagokion zuzenketa egiten da hemen.

Lehenengo eranskinaren 2. apartatuan, (Teknologoak prestatzeko laguntzak), 2018/5395 (10/8) orrialdean,

honela dio:

10	Esne-gintzako aukera bioasungarriak garatzea	Elikagaien Zientzia eta Teknologia Gradua Marketin Gradua	EHU – Laktiker Farmazia Fakultatea (Vitoria-Gasteiz)
----	--	--	--

baina honela esan behar du:

10	Esne-gintzako aukera bioasungarriak garatzea	Elikagaien Zientzia eta Teknologia Gradua Marketin Gradua Negozioen Kudeaketako, Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako Gradua Nekazaritzaren Ingeniaritzako Gradua	EHU – Laktiker Farmazia Fakultatea (Vitoria-Gasteiz)
----	--	---	--

Vitoria-Gasteiz, 2018ko azaroaren 8a.

Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburua,
MARÍA ARANZAZU TAPIA OTAEGUI.